

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko abenduaren 19a. IX. urtea. 2.453 zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosa&Co elkarreak berrehun bono banatuko ditu

Tolosa&Co elkarreak elkartasun kanpaina jarri du martxan, eta 6.000 euro banatuko ditu; horretarako Tolosako udaleko gizarte zerbitzuen laguntza izango du **03**

## Musika eta hitzak izango dira 'Herrira noa' ekimenean

Igandean Villabonako Gurea antzokian izango da Herrirak antolatu duen kultur ekitaldia; sarrerak aldeztatik aurretik erosteko deia egin dute **02**

### Azkarragaren hitzaldiarekin hasiko da Olentzerotan Jakin-minez

Altzoko kultur egitarauari gaur emango diote hasiera eta lau egunez luzatuko da; '12 tesi bizimodu honen akaberaz' solasaldia emango du Joseba Azkarragak **07**

### Bonberenea, 15 urtez urratsez urrats aurrerapausoak ematen

Ekitaldi ugari antolatu dituzte urteurrena dela eta, tartean asteburu honetan egingo dituzten bazkari eta afari bana; agintariei ausardia eskatu diete **07**



TELLERA

**Garbiñe Ubeda** Kazetaria eta idazlea

## «Sariak literatur atea parez pare ireki dizkit, eta nobela idazteko indarra eman dit»

'Heldu den iragana' proiektua nobela bihurtzen ari da tolosarra, Agustin Zubikarai beka irabazi eta gero; lanak 36ko gerra izango du hizpide **06**



sarrerak

### zozketa

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu



Abenduak 23 • Igandea  
12:15  
Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
RealMadrid  
saskibaloia partida

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

**Herrira Villabona:**  
Poesia eta kantu emanaldirako

Abenduak 23 • Igandea  
18:30  
Villabonako Gurea zinema



harpidedunentzat  
**TXOKOA hitza**



Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.

# Aurpegi ezagun ugari elkartuko dira Gurean, 'Herrira noa' ekimenean

Herrirak antolatu duen ekitaldi kulturala hilaren 23an, igandean, izango da Villabonan, 18:30etik aurrera

Asier Imaz Villabona

Villabonako Gurea antzokian *Herrira noa* ekimena antolatu dute hilaren 23an, igandean. 18:30etik aurrera, euskal eszena musikaleko hainbat izen oso ezagun oholza gainera igoko dira, emanaldiak eskaintzera. Musika eta hitzekin jolas egingo dute, *Herrira noa* ekimen kulturala babestuz, eta urtarrilaren 12an Bilbon egingo den manifestaziora joateko deialdia eginaz.

*Herrira noa* ekimen kulturalak, Euskal Herria zeharkatzeko asmoa dauka. Villabonara etorri aurretik, besteak beste, Gernika eta Gasteiz bisitatu zituen, arrakasta handia lortuz. [herrira.org](http://herrira.org) webgunean, ekitaldi horietako bi-

«Momentu hunkigarriak izan ziren, publikoaren eta taula gainekoon artean»

deoak daude ikusgai. Laster, Villabonako elkartuko zaizkie aurrekoei. Gernikan, besteak beste, eskualdeko bi musikari egon ziren, Bide Ertzeaneko Imanol eta Joni Ubeda. «Guretzat ekitaldi atsegina izan zen. Batetik, musikariak elkartu ginen, eta bestetik, poetak, espetzeko esperientzia bizi dutenak, edo bizi gabe ere, espetxean egin den literaturarekin sentsibilitatea duten idazleak. Bere horretan, niretzat gustagarria den ekitaldia da, gustuko ditugun bi arlo elkartzeko baitira», aipatzen du Imanol Ubedak.

Bide Ertzean taldeko kideak, jende ugari elkartu zela dio, eta



Imanol eta Joni Ubeda Gernikako Herrira noa ekimenean. HITZA

hainbat unetan, giroa berezia izan zela: «Esenaratzera ere oso polita izan zen. Momentu hunkigarriak ere izan ziren, publikoaren eta taula gainean ginen artean. Normalean, horrelako ekitaldietan, ohikeria asko dago, eta zentzu horretan, Gotzon Barandiaranen ahalegina aipatzekoa da. Ekitaldiaren atzean aldarrikapena dago, baina beste modu batetara eszenaratu». Artista bakoitzak bi edo hiru pieza jotzeko aukera izan zuen, eta Ubeda anaiek, Deabruak Teilatueta taldeko kanturen bat jotzeko probestu zuten.

Herriratik, Villabonan igande honetan egingo den ekitaldira gonbidatu dituzte eskualdeko herritarrak. Gurea antzokia txiki geldituko dela aurreikusten dute, aurretik sarrerak lortzea gomendatu dute Herrirako kideek; Villabonako Iratzarren, edo Tolosako Orbela tabernan.

**Tolosan, elkartasun denda**  
Gabonekin batera, hainbat ekimen antolatu dituzte eskualdean. Asteasun egitarau oparoa antolatu dute, adibidez, eta Tolosan, besteak beste, Elkartasun denda. Kokaleku berriarekin etorri da Herrirak zabaldu duen saltokia. Kale Nagusiko 5. zenbakian jarri baitute, Lizardi elkartearen azpian. Urtarrilaren 12ra bitarte zabalik egongo da.

## ↓ Egitarauak

### ASTEASU

- Abenduak 23, igandea**
  - 18:30. Villabonako Gurea zinemaren, *Herrira noa* ekimen kulturala.
  - Abenduak 24, astelehena
  - 18:30. Asteasuko plazan, Olentzerorekin presoan aldeko kalejira.
  - Abenduak 27, osteguna
  - 19:00. Ikus entzunezko aretoan, *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala.
  - Abenduak 31, astelehena
  - 19:00. Villabonako plazan, Aiztondo bailarako manifestazio isila.
  - Urtarrilak 12, larunbata
  - 15:15. Bilboko manifestazio nazionalerako autobusa irtengo da Asteasutik. Izena emateko 615 70 87 32 zenbakira deitu, edo herriko tabernetan apuntatu behar da.

### IBARRA

- Bihar, abenduak 20
- 19:30. Euskal preso eta iheslarien alde Gabonetan kantari irteteko entsegua, ludotekan.
- Abenduak 24, astelehena
- 09:30. Xepian gosalduko dute, ondoren, herrian barrena kantuan ibilikio dira.
- Urtarrilak 1, astearta
- 01:00. Euskal preso eta iheslarien aldeko brindisa Subegin.

### VILLABONA

- Abenduak 23, igandea
- 18:30. Gurea zinemaren *Herrira noa* ekimen kulturala: Eñaut eta Beñat Ken 7; Jexuxmai Lopetegui; Hutsa; Anje Duhalde; Keu Agirretxea; Mikel Etxaburu; Xabier Amuriza; Paddy Rekalde; Oier Gonzalez Bilbatua; Mikel Urdangarin; Xabi Solano eta DZ Esne Beltza; Petti eta Ines Gose.

# Liburuaren Azoka antolatu dute lehen aldiz Zizurkilen

Teodoro Hernandorena XI. Ipuin Lehiaketako sariak bihar banatuko dituzte Atxulondo kultur etxean, 17:30ean

A. Imaz Zizurkil

Zizurkilgo Liburuaren Astea atzo hasi zen, haurrei zuzendutako ipuin kontaketaekin; Atxulondon Badut Taldea ikusteko aukera egon zen. Liburuaren Astea hilaren 22an amaituko da, eta lehen aldiz, Liburuaren Azoka egingo dute.

Abenduaren 20an, bihar, Teodoro Hernandorena XI. Ipuin Lehiaketako sariak banatuko dituzte. Bost modalitate desberdinetako sarituko 17:30ean elkartuko dira Atxulondo kultur etxean. Udaletik, Zizurkilgo ikastetxei esker berezia eman nahi izan die, lehiaketa honetan duten inplikazioagatik.

Abenduaren 22an, larunbate-

an, ekitaldi festa I. Liburuaren Azokarekin hasiko dute. Zizurkil Goiko Zimitorioan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era egongo da azoka zabalik. Bertan, liburutegitik aterako diren bigarren eskuko liburu eta ipuinak erosteko aukera izango da, euro baten truke. Jasotzen den diruarekin material berria erosi nahi dute liburutegirako.

Azokak irauten duen bitartean, 12:00etan, Harkaitz Canok *Twist* eleberriaren inguruan solasaldia eskainiko du, Iriarte kultur etxean. Udaletik jakinarazi duteenez, Canok hitzaldia baino solasaldia nahiago izan du, horrela, herritarrekin hitz egiteko aukera bultzatu nahi du idazleak.

Zizurkilgo dantza taldeak ere bere ekarpena egin nahi izan du, eta horrela, 13:00etan, emanaldia eskainiko dute herriko dantzariak. Egunarekin eta Liburuaren Astearekin amaitzeko, 22:00etan, *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala ikusiko dute Atxulondon.

## → Laburrak

### Espainiako banderaren inguruko batzarra, gaur

**ANOETA** > Espainiako banderaren inguruan hitz egiteko, Anoetako Bai Euskal Herriari taldeak batzar irekia antolatu du gaur. Inposaketaren aurrean, aurrera begira zein urrats eman ezta baidatuko dute bertan. Bai Euskal Herriaririk, Anoetako eragile eta herritarrak gonbidatu dituzte 19:00etan hasiko den bilera- ra, udaletxeko bilkura aretora.

### Dantza-Soka Eguna antolatzeko bilera, gaur

**ANOETA** > Dantza-Soka Eguna otsailaren 2an ospatuko da Anoetan, eta eguna antolatze- ko lehen bilera gaur egingo dute, 19:30ean udaletxean. Herriko taldeei eta herritar orori deitzen zaie bertan parte hartzera.

### Udalbatzaren ez ohiko bilkura, gaur, 19:00etan

**AMASA-VILLABONA** > Udalbatzak ez ohiko bilkura egingo du gaur, 19:00etan. Sei puntu izango ditu bilkurak, eta bertan, hiru alderdiek aurkeztuko dituzten moziok eztabaidatuko dituzte.

### II. Jostailu Truke Azoka, igandean, 11:30ean

**ASTEASU** > Matxintxulo gazte asanbladak, Ebia kultur taldeak, udalak eta Guraso Elkarteak II. Jostailu Truke Azoka antolatu dute Asteasun, hilaren 23an. Jostailuak eramateko ordutegia 11:30etik 12:00etara izango da, eta trukerakoa, 12:30etik 13:00etara. Udaletxeko arkupean jarriko dute azoka, eta eguraldi txarra eginez gero, ikusentzunezko aretora joango dira.

### Udalak herritarren ekarpenak eskertu ditu

**AMASA-VILLABONA** > 2013ko aurrekontuak parte hartzearen bidez osatu nahi ditu udalak. Ekarpentak egin dituzten herritar guztiak zoriondu ditu udalak, helburu horretan laguntzeagatik. Urtarrilean jendaurrean prozesuaren ebaluazioa aurkeztuko dutela azaldu dute.

### Ereserigiren Kantu Tailerrean, izen ematea

**VILLABONA** > Eresargi abesbatzak Kantu Tailerra antolatu du, 8-15 urteko gaztetxoentzat; abenduaren 26, 27, 28 eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an, 11:00etatik 12:30era, Villabonako kultur etxean. Izena Azkar zapata dendan eman behar da, eta epea gaur amaitzen da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# 6.000 euro banatuko dituzte beharrenda dauden tolosarren artean

Gabonen atarian, elkartasun kanpaina jarri du martxan Tolosa&Co elkarteak, udalaren laguntzaz

Asier Imaz

Gabonetan giro berezia sumatzen da kaleetan, eta horrek, eragina izaten omen du bihotzetan. Iragarki batean baino gehiagotan ikusia, errealtate bilakatu nahi izan du Tolosa&Co merkatariek. Gabonak moduan, krisia ere gainean dugula ez dute ahazten Tolosako merkatariek eta ostalariek. Hori ongi dakite euren artean, alde batetik, ogibidean nabari dutelako, eta bestetik, tolosarrek harreman zuzena dutelako euren lanean.

Errealtate horren aurrean, euren esku dagoen gutzia egiten saiatu dira, eta tolosarrei laguntzeko borondatez, 6.000 euro banatuko dituzte txarteletan. Hauek, ordea, ez dituzte orain arte bezala zozketa edo lehiaketa bidez banatuko. Benetan beharrenda dauden familietara iritsi nahi dute, eta horretarako, udaleko gizarte zerbitzuen laguntza izan dute.

Oinarritzko elikagaiak udalaren laguntzarekin erosten dituztenez, bonoen hartzaileek, ez ohiko produktuak erosteko aukera izango dute; hori aipatu dute Tolosa&Co merkatariek elkartetik. Gizarte zerbitzuek erabaki dute nori eman merkatariek bideratutako laguntza, zuzenean euren harremanetan jarriz, eta txkeak eskutitz bidez banatuz.

## Udaleko gizarte zerbitzuetatik berrehun bat bono txartel banatu dituzte

Ekimenaren aurkezpena atzo egin zuten udal eta merkatarien ordezkariak, Tolosa&Co elkartearen egoitzan. Bertan, Ibai Iriarte alkateak, eskerrak eman zizkien elkarteak kideei egiten ari diren lanagatik. Ideia («txalogarriztat») jo du, eta kanpaina honen proposamena jasotzearekin batera aurrera egiteko esan zien elkarteak ordezkariak.

Tolosa&Co moduko elkartearekin lan egitea plazer bat dela nabarmendu zuen. Merkataritzat

txikia sustatuz, Tolosa herriarekiko duten maitasuna adierazten dutela adierazi zuen. Era berean, beraien saltokien alde bakarrik ez dutela egiten argitu zuen: «Egoera gogorra jasaten ari diren familiak buruan dituzte, eta lagundu egingo die», gaineratu zuen.

Ana Lozano gizarte zerbitzuetako teknikariak, legeak uzten dizkieten eskumenak erabiliz, berrehun bat txartel banatu dituztela esan zuen. Familia kopuruari eta egoerei egokitutako bonoak izango dira, eta «lasaitasun guztiarekin hartu eta gastatzeko sari bat da», esan zuen. Tolosa&Co elkartearen barruan dauden saltokietan gastatu ahal izango dute, eta txartelarekin batera, eskutitzean bertan jasoko dituzte txartelak erabiltzeko ohartxoak.

## Irura eta Anoeta, jai giroan

Gabonetan elkartasun giroa modu askotara zabaltzen da. Tolosa&Co elkarteak hartu duen bideak, horietako bat izateko helburuz sortu eta aurkeztu dute. Bestera, herrigintza izan daiteke, hau da, Gabonen eta Eguberrien inguruan, ekitaldiak antolatzea herriar guztiarentzat. Iruran eta Anoetan prest dituzte urte amaierako eta hasierako ekitaldiak.

Iruran ospakizunak atzo hasi ziren, Loatzo Musika Eskolako ikasleen Eguberrietako kontzertuarekin. Anoetan, bide bera jarraituz, Loatzoko ikasleek gaur eskainiko dute Gabonetako kontzertua. 19:00etan, elizan. Lehen ospakizun egunak joatean, bi herrietako biztanleak astelehenera begira jarriko dira, egun horretan iritsiko baitira Olentzero eta Mari Domingi. Hortik aurrera, egitarauak ezingo dira, eta elurra istea bakarrik faltako da giroa borobiltzeko.



Olga Artola, Ibai Iriarte, Juanjo Ruiz eta Ana Lozano elkartasun kanpainaren aurkezpen ekitaldian, atzo. E. MAIZ

## ↓ Gabonetako egitarauak

### ANOETA

#### Gaur, abenduak 19

■ 19:00. Loatzo Musika Eskolako kontzertua, elizan.

#### Abenduak 24, astelehena

■ 16:30. Auzoz auzo kantari, Anoetako Herrirak antolatuta.

■ 18:00. Olentzero eta Mari Domingoren etorrera. Isastitik oinez iritsiko dira herriko plazara. Ongi etorria egingo die herriko eragileek, eta ondoren, gozokiak banatuko dituzte haur eta gaztetxoaren artean.

#### Abenduak 25, asteartea

■ 12:00. Anoetako Txistulari Taldearen kalejira.

#### Abenduaren 26tik 28ra eta urtarrilaren 2tik 4ra

■ 11:00-12:00 eta 15:00-16:00. Xakea Hozpel kaleko udal lokalatan.

#### Abenduak 26, asteazkena

■ 17:30. Mikelasagasti auditorioan, *Maria Macozzi* 4-12 urte bitarteko haurrentzako ikuskizuna, Ba zen behin clown taldearen eskutik. Sarrera 2 euro.

#### Abenduak 28, ostirala

■ 10:30. Lazkaoko Txiki Parkera irteera. Itzulera ordua, 13:30ak.

■ 18:00. Gaztaina erreka plazan, Anoetako Herriraren eskutik.

■ 22:00. *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala, Mikelasagastin, Herrirak antolatutik. Sarrera, borondatea.

#### Urtarrilak 4, ostirala

■ 10:30. Txuri Urdinera irteera.

#### Urtarrilak 5, larunbata

■ 18:00. Erregeen kabalgata.

#### Urtarrilak 6, igandea

■ 12:00. Anoetako Txistulari Taldearen Kalejira.

### IRURA

#### Abenduak 24, astelehena

■ 11:30. Hamaiketako plazan, haurrentzat.

■ 12:30. Mari Domingi etorriko da Olentzeroarentzat gutunak jasotzera. Erabiltzen ez diren jostailuak eramatea eskatu du.

■ 18:00. Olentzeroren kalejira eta opari banaketa. Ondoren, jaiotza biziduna San Migel plazan.

#### Abenduak 26, asteazkena

■ 17:30. *Kimutxipuinaren* aurkezpena plazako ikastolan.

#### Abenduak 27, osteguna

■ 17:30. Birziklapen magia, Eriz magoaren eskutik Kulturunean.

#### Abenduak 28, ostirala

■ 17:00. Xbox txapelketa Gaztelekuan.

■ 17:30. Merienda eta ondoren, haur dantzaldia Irintzi taldearen eskutik, Kulturunean.

■ 10:00. Loatzo mendira egun pasa plazatik abiatuta. Bertan hamaiketako egingo dute, IGaren eskutik.

■ 17:30. Birziklapen magia, Eriz magoaren eskutik Kulturunean.

■ 17:00. Txokolate jatea.

■ 18:00. Errege Magoen etorrera, eta opari banaketa.

**Beti Alai**  
jatetxea

Garaian garaiko janariak  
Arraikiatan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterikalea, 16 • 20400 TOLOSA

**MENDI-ALDE**  
Jatetxea

Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaunartzeak...

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

**USABALGO LASKORAIN IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEA**

Bazkide-Lagun, agur:

- Urteko Ohiko Batzar Orokorra dei egiten dizut, Euskal Herria plazako TOPICen burutuko dugunera. Batzar hau **abenduaren 19an**, asteazkena, izango da arratsaldeko 19:00etan hirugarren deialdian. (lehen deialdia 17:30ean eta bigarrena 18:00etan).
- Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek dira:
  - 1.- Bi bazkide izendatzea, Lehendakariarekin eta Idazkariarekin batera Batzar Nagusi honetako akta onetsi eta sina dezaten.
  - 2.- Aurreko batzareko aktaren onarpen txostenaren irakurketa.
  - 3.-Partaide berriak Artekarrizta Kontseiluan eta Gurasoen lan-batzordeak.
  - 4.-Balantzea eta Aurrekontua.
  - 5.-Kuotak eta finantzazio iturriak
  - 6.-Kilometroak 2013
  - 7.-Ikasturteko egitasmoa eta emaitzak.
  - 8.-Elkartasun ikastolak Europar Kooperatiba Elkartearen sarzoko erabakia hartzea.
  - 9.-Galdera eta eskeak

Tolosan, 2012ko abenduaren 14an, Batzordeko Lehendakaria

Urtarrilaren 26a bitarte hiru erakusketa ikusi daitezke Tolosako Aranburu jauregian; Javier Baldaren komposizio abstraktuak, Nerea Ugarteren collageak eta Iraia Okinaren ilustrazioak.

# Artea ulertzeko hiru ikuspegi

Rebeca Calvo

**D**atzen Eguberrietan, eta urtarrilaren 26a arte, Tolosako Aranburu jauregian sar-tzen denak hiru erakusketa ikus-teko aukera izango du. Artistek lan egiteko eta adierazteko bide desberdinak aukeratu dituzte, baina hirurek topatu dute berran: dutes estegina adierazteko modua.

Bisitariak, lehen solairuan, Ja-vier Baldaren (Tolosa, 1959) lane-kin egingo du topo. Arkitektura-rekin jolasten du, nahiz eta «fun-ctzionik gabeko arkitektura» den Baldaren hitzetan, eta koadroak badira ere, pintatuta baino, eraili egiten duela dio sortzaileak. 16 lan bildu ditu Tolosan, eta tamai-na txikietatik hasi eta horma irudi handiak ikus-teko aukera izango du gerturatzeko denak. Pinturaren eta eskulturaren bi-degurrizko kokatuta, lan lanek komposizio bereziak dira, hainbat geruza dituzte, eta kolorezuzenak be-dioak irudikatzen dituzte. Irudindarrak New Yo-ko Pollock-Krasner Founda-tion bekari esker egindako lanak dira. *Komunikazioa: Etorritzena-ko aukerak* izenpean, Aranburun ikusi daitezkeak.

Lehen solairutik behe solairu-ra joan behar da gero, eta bertan ikusi daitezke beste bi bildumak.



Arkitektura lanak ere badira Javier Baldaren koadroak, eta hainbat geruza izan ohi dituzte. *IRUDINDARRAK*

Iraia Okinaren ametsen mundu leumatik, Nerea Ugarteren colla-ge kolorezuzenak pasaboa da ikus-lea.

**Ilustrazioak**  
Iraia Okinak (Durango, 1980) Jo-xantonio Ormazabalekin batera argitaratutako *Ilargia esnatu da* libururako egindako ilustrazioak ere ikusi daitezke Tolosan. Oki-

nak bere sentimenduak adieraz-teko hizkuntza bisual egokiena bilatzen du beti: margolanak, ar-tistak, lanak, txotxongioloak... Nahiz eta Aranburu jauregi-ko erakusketan ilustrazioak baka-rik bildu dituen, lan ia gurtietan zuhaitzen irudiak (dandak, izan ere, zuhaitzen irudiak gidatu zuten sortzailea ipuin osoan, «zuhai-tzak adierazten baitzaizten bereziki (Ormazabal) urtaroen joan-eto-rrien erara, bizitzaren beraren bilakera, jaiotzen garenetik, hil-tzen garen arte, eta ondoak, giza-kiak naturarekin bat egiten due-nean. Ideia horretan saskonduz eta neure interpretazioa eginez burutu ditut narrazioak hainak ma-teria organikoaren ehundura eta kolorea bilatzu», dio marrazkigile-ak.

Okinaren ametsen mundua atzean utzi, eta Nerea Ugarteren (Tolosa, 1956) umbertso kolore-

**Baldaren lehen solairuko erakusketan arkitektura iradokitzen duten lanak daude**

**Behe solairuan Okinaren eta Ugarteren sormen lanak ikusi daitezke**

trau ikus-teko aukera izango du bisitariak, aukerik. Ondoak lanak dira, birziklatutako paperekin egindako komposizioak. Ikuseak, gerturatzu gero, eguberokotasu-nean txertatutak diren hainbat elementu ikusi ahal izango diru-«disinu elementuak, zapatak, marrazki eta ilustrazio bitxiak eta ez horren bitxiak, puziak pe-rezertateko paperak...» baina urrunduz gero, infinitus, itxasoa eta urteko urtaro jakin bat iradi-ki-tzen duten sormen lanak ikusi-ko ditu.

## Erakusketak

- **Non.** Tolosako Aranburu jauregian.
- **Noiz arte.** Urtarrilak 26.
- **Ordutegia.** 17:30etik 20:30era, jaiegunetan eta aste-lehenetan izan ezik.
- **Erakusketak.** Javier Baldaren *Komunikazioa-Etorritzena*ko aukerak Nerea Ugarteren colla-ge lanak eta Iraia Okinak Joanantonio Ormazabalekin batera egindako *Ilargia esnatu da* libururako egindako ilustrazioak.



Baldaren horma irudi handiak ere ikusi daitezke Aranburun. s.c.




Kolore gutxi erabili ditu irudindarrak bilduma honetan. s.c.



Zuhaitzen irudiak gidatu dute Okina ipuin osoan zehar eta hori ere ikusi ahal izango du Aranburuko bisitariak. s.c.



Argia esnatu da liburua ere kontsultatu daiteke Okinaren erakusketara sartzerakoan. s.c.



Gertuak elementu asko ikusi daitezke Nerea Ugarteren lanetan. s.c.

Tolosarak lan koloretuak egiten dituzte, azken irudiak /Isas zota izena du. s.c.

## Garbiñe Ubeda ◊ Kazetaria eta idazlea

‘Heldu den iragana’ nobela proiektuari esker, Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Agustín Zubikarai beka irabazi berri du Ubedak

# «Beldurra ezinbestekoa da lan on bat egiteko»

Julen Telleria Tolosa

Tolosarra izan arren, egun Hendaiñan bizi da Garbiñe Ubeda (Tolosa, 1967) kazetaria. Aurten, ordea, kazetari lanak idazle lanarekin tartekatatu beharko ditu. Agustín Zubikarai beka irabazi ostean, urtebete eskas du *Heldu den iragana* proiektua nobela bihurtzeko. Oso gustura onartu du erronka, «lana bukatzeko data zehatz bat jartzeari dirua bezain garrantzitsua» baita bere esanetan. Larunbat goiza aprobetxatuta, Tolosara etorri da Ubeda, familiakoei ohiko bisita egitera. Fronton kafetegian, haurtzaroko oroitzapen ederrak ekartzen dizkion toki kuttunean erantzun ditu kazetariaren galderak.

**Lehiaketara aurkeztutako hamazazpi lanetatik zurea aukeratu dute. Esperal zenuen?**

Egia esanda ez. Senarrak aholkatuta aurkeztu nintzen, ez baitut gehiegi sinesten txapelketetan eta halakoetan. Baina tira, lehendik ere banuen proiektu honi heltzeko asmoa, eta gainera zertxobait idatzia ere banuekan. Horregatik eman nuen izena. Hala ere, niretzat berri onak zeuzkatela esanez deitu zidatenean, erabat ahaztuta nengoen aurkeztu nintzenik ere. Batere espero ez nuelako izan da sekulako sorpresa, baina ikaragarri poztu naiz.

**Gustura, beraz, jasotako sariarekin eta jarritako baldintzekin?**

Honelako lehiaketa bat irabaziz gero, dirua jasotzeaz gain lana bukatzeko epe bat jarri izan da. Horixe da lehiaketek duten onena. Lana bukatzeko data zehatz bat jartzeari dirua bezain garrantzitsua da. Epe hori jarri izan ez balidate, egunerokotasunak jan egingo ninduen. Nobela bat idaztea gauza latza da, lan handia suposatzen baitu, eta familia, lana eta beste mila bizio daukazunean gogoia edukita ere ezin diozu behar bezala heldu. Orain, ordea, epe jakin bat jarrita sekulako

erronka bilakatzen da, eta horixe eskertzen diot gehien lehiaketari.

**Lanaren kalitate linguistikoa eta zure estiloa goraiatu ditu epaimahaiak. Zein ote da ba zure estiloa?**

Ofizios kazetaria naizenez, horretan landu eta zaildu dut nire estiloa. Hala ere, nik egiten dudana kazetaritza oso muga lausotan dabil. Ez da eguneroko kazetaritza, baina ezta literatura ere. Tartean dagoen zerbait da. Egunkarietan eta zutabeak idazten ditudanean, normalki ipuin joera izaten dute, eta askotan fikzioa ere izaten dira, nahiz eta errealtateaz mintzo naizen. Muga lauso horretan legoke, beraz, nire estiloa.

**Zer suposatzen du zuretzat sari hau irabazteak?**

Literatur munduaren atek pare pare zabaldu dizkit, orain arte hanka bat barruan eta beste bat kanpoan jarrita egon bainaiz ere. Baina sari honek egin didan ekarpen handiena indarra ematea

**«Ez dut gerran gertatutakoa jakin beharrik, gerra azkena dela jakiteko»**

**«Denek uste dute desagertutakoak hilda daudela, baina egon hor daude»**

izan da, nobela idazteko indarra. Bestela koldarra izango nintzen, eta ziurrenik ez nuen nobela amaituko, ez behintzat ezarritako epe horretan. Idazten hasterakoa milaka zalantza sortzen dira, ondo edo gaizki ari ote zaren, estilo zabarregian ari ote zaren, non demontretan sartu zaren... Horregatik, kanpoko norbaitek zalantza guzti horiei erantzutea behar izaten da, eta sari hau irabazteak horretan lagundu dit.

**Zeri buruz hitz egingo du zure nobela honek?**

Nobelako protagonista desager-



J. TELLERIA

tutako bere aitona bila dabil. 36ko gerraren ostean Frantziara alde eginda desagertu zen aitona, eta familiak beti pentsatu izan du hil egin zela. Aitonaren figura oso mitifikatuta zeukaten familian. Baina haren arrastoari tiraka hastean, gauza bitxiak deskubritu ditu pertsonaiak. Honela, bizitzan izan dituen habeak kolokan jarriko dira, bereak eta baita bere familiarenak ere. Gauza berriak deskubritzearekin batera, erabakiak hartu beharko ditu, arreedo soegin, kontatu edo berantzetan gorde. Eta hartzen duen edozein ondorio negatiboak erabakiak ekarriko dizki ziurrenik. Aitonaren mitoa betiko eraistea eta familiak egia jakiteko dituen eskubidea egongo dira jokoa.

**Zer dela eta jo duzu 36ko gerrako garaletara?**

Gerrek hozkia ematen badigute ere, gu haien ondorio gara. Guk aitona bat galdu genuen gerran, eta bestea ere hor nonbait ibiliko zen. Etxe guztietan dago horrelako kasuren bat. Gerra denona izan da. Kontu horiek, ordea, isildu egin dira askotan errepresioaren beldur, eta hori ez da ona, akats berdina behin eta berriz errepikatzen ditugulako. Hala ere, nik ez dut gerraz hitz egin nahi. Ez dut gerran gertatutakoa jakin beharrik, gerra azkena dela jakiteko. Niretzat garrantzitsua da desagertutako pertsona horrek ondoan uzten duen arrastoa da.

**Zein da ba desagertuek uzten duten arrastoa?**

Desagertuak mamuen antzekoak dira. Denek uste dute hilda daudela, baina egon hor daude, eta ondorengo bizitza baldintza-

tzen dute. Desagertuen oinordekoak beti misterio horretan harrrapatuta daude, pertsona horri ezin zaiolako agur esan, ezin delako etapa hori itxi. Pertsona bat hiltzean oso mingarria da, baina agur esan, dolua pasa eta etapa hori ixten da. Desagertuek ez dute aukera hori ematen. Horregatik, nobelako protagonistak aitonaaren arrastoa bilatzeko behar sentituko du, behingoz etapa hori itxi eta aurrera egin ahal izateko.

**Pertsonaia eta istorioa erabat asmatutakoak dira edo norbaitengan oinarritu zara?**

Desagertutako aitona baten istoriotik abiatuko naiz, beraz, bai, abiapuntua bada autobiografikoa. Hortik aurrerako guztia, ordea, guztia fikzioa edo asmatutakoa izango da. Errealtatearen antza izango du, baina antza besterik ez.

**Irakurleak zer topatuko du nobela honetan?**

Ildo nagusia istorioak markatuko du, baina horren atzean hausnarketa prozesu handi bat egongo da. Aitonaren bila dabilela, pertsonaiak hausnarketa mordo bat egin beharko du haren arrastoa jarraitzeko. Deskubritzen duen gauza bakoitza zentrifugatu, asimilatu eta aurrera egin beharko du. Beraz, gogoeta erabatekoa izango da nobela guztian zehar.

**Nobela hau, literaturan egin dituzun aurreko bi lanengandik erabat desberdina dela esan daiteke. Nolatan ausartu zara proiektu honetan murgiltzera?**

Desagertuaren figurari heltzeko gogoia nuen nik, eta hori kontatzeko burura etorri zitzaidan formularik onena nobela bat idaztea

izan zen. Hala iruditu zitzaidan behintzat honetan hasi nintzen. Besteak beste, horrenbeste urteren ostean egia borobila ez delako inoiz deskubritzen. Eta deskubrituko balitz ere, behar du fikziotik pixka bat hobeto ulertzeko.

**Eroso sentitzen zara lan horretan?**

Ez, baina horixe da onena. Eroso sentituz gero, akabo. Erosotasunak ez dauka ezer erronkatik, eta gainera, lana oso erraz egiten baduzu, ziurrenik emaitza ez da horren borobila izango. Deserosotasuna eta beldurra ezinbestekoak dira lan on bat egiteko. Gaizki egingo dudana beldur hori oso sortzailea da.

**Eta kazetaritza edo literatura aurkeztzeko galdetuko banizu?**

Zer da ba kazetaritza eta zer literatura? Nik ez dut kazetari senik, ez dut kazetaritza ikasi. Gehiago gustatzen zait sortzea, fikzioa. Horregatik, nik landu izan ditudan gaiak muga lauso horretan mugitu izan dira. Kazetaritzara dedikatu naiz euskaraz idatzi nahi nuelako, eta Argian lan egin, egunkari bat sortu...

**Datorren urteko Durangoko Azokan aurkeztuko duzu zure lana. Bitartean, zertan ariko da Garbiñe Ubeda?**

Gustatuko litzaidake nobelarekin bakarrik aritzea, baina hori ezinezkoa da. Argian eta beste mila saltsatan sartuta jarraitu beharko du nobela, baina ez zait batera inporta. Pozik egingo dut. Gainera, sari ekonomikoarekin bidaiatxoaren bat edo beste egingo dut seguruenik, nobelarako dokumentatzeke.

◊tolosaldean@hitza.info

# Bonberenea 15. urteurrena «ausardiaz» ospatzen ari da

Asteburu berezia izango da hau gaztetxearentzat; bere etorkizuna bermatzeko ausardia eskatu die agintariei

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

Tolosako Bonberenea gaztetxeak hainbat ekitaldi antolatatu ditu bere 15. urteurrena ospatzeko, *Etorkizuna ausardiaren eskutan* lelopean. Azaroaren 10ean hasi ziren eta urtarrilaren 25a arte iraungo dute, eta asteburu hau berezia izango da, besteak beste, larunbatean urtemugaren bazkaria egingo dutelako.

Hamabost urte bete dituela eta beste horrenbesteko egiteko gai dela adierazi du Bonbereneak ohar baten bidez. Urteurreneko goiburuari helduz, «Bonberenearen etorkizuna bermatzeko beharrezkoa den ausardia» eskatu die-

te agintariei. Bonbereneak gaineratu duenez, bere «etorkizun egonkorra ziurtatuko duen egoera erraztea» dagokie agintariei, «horrelako kultur ondarea arriskuan jarri nahi ez bada behintzat». Gaztetxeo kideek azaldu dutenez, «ez gara hasiko mugimendu honek gure herriko eta inguruko pertsona asko eta askori suposatzen dion esfortzu eta buruhausteez hizketan hasiko, baina argi utzi nahi dugu ez gaudela prest politikaren haize orrtzak agintzen duen norabidea jarraitzeko».

15. urteurrena ospatzeko orain arteko agendarik beteena osatu dutela diote, eta aurrean egindako jarduerak «oparoa» izan dela: «Betiko kontzertu mordo eta gogoangarriez gain, 6 disko argitaratu, beste bat birargitaratu eta hiru liburu kaleratu dira Bonberenea Ekintzak plataformaren eskutik». Hain justu, etzi beste liburu eta disko bat aurkeztuko dute, To-

## ↓ Aste honetako egitaraua

### ABENDUAK 21, ETZI

■ **19:00.** *Poca Tripa txaranga* 50 urte liburu eta diskoaren aurkezpena.

### ABENDUAK 22, LARUNBATA

■ **11:00.** Kalejira.  
■ **14:00.** 15. urtemuga bazkaria.

### ABENDUAK 23, IGANDEA

#### Okupazio Eguna

■ **21:00.** Afaria.  
■ **23:59.** Su artifizialak.

losako Poca Tripa txarangaren 50. urteurrenaren harira. «Ez dira asko gure herrian 50 urte bete dituzten txaranga eta zalantzarik gabe Poca Tripa da miresmen handienetakoa sortzen duena», azaldu dute Bonbereneatik.

## Irudia ◊ Leaburu-Txarama



## ADURRIAGA-OTXOA, AURRERA

Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketa egin berri dute Txaramako elkarteak. Lau bikote aurkeztu ziren (argazkian azaltzen direnak) eta horietatik irabazlea Jose Luis Adurriagak eta Juan Miguel Otxoak osatutakoa izan zen. HITZA

## Irudia ◊ Albiztur



## BELAUNALDIEN ARTEKOA

Albizturgo eskolakoek eta haur eskolakoek emanaldia eskaini berri die Bidegoiango eta Errezilgo eguneko zentroaren erabiltzaileei. Animalien gaia banaka azaldu ondoren, kanta eta dantzekin amaitu zuten. Adinekoek kantekin parte hartu zuten ere ekitaldian. HITZA

## → Laburrak

### 'Broad Peak 2010' ikus entzunezkoa, bihar

**IBARRA** › Josu Bereziartua mendizalearen *Broad Peak 2010* ikus entzunezkoa emango dute, bihar, 19:30ean, Ibarra kultur etxean.

### Udal musika eskolako ikasleen kontzertua, gaur

**TOLOSA** › Tolosako udal musika eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua emango dute gaur, 19:30ean, musika eskolako areto nagusian. Parte hartze zabala izango da, musika mota anitzeko hoge obra baino gehiago joko baitituzte musika eskolako ikasleek.

# Jakin-mina asetzeko lau eguneko egitaraua antolatu dute Altzon

XVI. Olentzero Jakin-minez egitaraua gaur hasiko da Joseba Azkarragaren hitzaldiarekin

**I. Garcia Landa** Altzo

Altzoko Udalak eta kultur batzordeak XVI. Olentzerotan Jakin-minez egitaraua antolatu dute. Lau egunehainbat ekitaldi izango dira, eta gai anitzak jorratuko dituzte. Joseba Azkarraga Etxagibel soziologoaren hitzaldiarekin hasiko da gaur egitaraua. 12

*tesi bizimodu honen akaberaz* izango da solasaldiaren gaia, eta 19:30ean emango du, udaletxeoko ekintza eta batzar aretoan.

Bihar, hilak 20, beste hitzaldi bat izango da, eta gai nagusia umorea eta euskara izango da. Kike Amonarriz soziolinguista eta telebista aurkezleak emango du, *Umorea hizketan, umorea hitzetan* izenburupean. 19:30ean hasiko da eta udaletxeoko aretoan izango da.

Musika izango da etziko protagonista. Loatzo musika eskolako ikasleek kontzertua emango dute, 18:00etan, elizan. Herriko haurrek bere musika zaletasuna

erakutsiko dute emanaldian. Larunbatean, hilak 22, hainbat ekitaldi izango dira arratsaldean. Hasteko, Zirko Eskola Txikia emanaldia, 17:30ean, frontoian. Adin guztietako herritarrek edeki gozatzeko aukera izango da. Ondoren, 19:30ean, Xabier Amuriza bertsolari eta idazleak *Xalbadorren bat-bateko mirakulua* hitzaldia emango du liburutegian. Herri afaria iritsiko da solasaldia amaitu eta gero. 21:00etan hasiko da eta ume eta gaztetxoek 5 euro eta helduek 15 euro ordaindu behar dituzte. Afalostean, Xalbadorren bertso ezagunenak kantatzeko aukera izango da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



17°  
12°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	20°
HOTZENA	12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria  
Hedabideak

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Galtzaundi  
euskara  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

Hitza-k  
Bai  
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalaiztaz argitzeak, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Tolosako Trianguloa plazako argiteria aldatuko dute argi kutsadura gutxituz

LED motako argiak jarriko dituzte eta oraingoekin konparatuz %79 gutxiago kontsumituko da

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosako Udalak 2011. urtean sinatu zuen Alkate Ituna, eta Europa mailako egitasmo honen arabera, herriak 2020rako 3 konpromiso hartu zituen: energia kontsumoa %20 murriztea, energia iturri berriztagarrien kontsumoa igotzea eta CO2 isurpenak %20 gutxitzea. Udalak hainbat

urrats eman ditu bide horretan, eta orain beste bat emango du, izan ere, Trianguloa plazako argiteria zaharkitua berrituko du, energia kontsumoa gutxituz. Guztira 27 kale argi aldatuko dituzte eta LED motako argia jarriko dute 9.038 euroko inbertsioa eginda. Tolargiko langileek egingo dute aldaketa.

Argi berriek argi kutsadura murriztuko dute, argitu behar dutena bakarrik argituko baitute, batetik, eta bestetik, energetikoki oso efizienteak izango dira, bere kontsumoa %70 gutxiago izango delarik oraingoekin konparatuz. Energia aurrezpenari dagokionez, urteko 6,6 tona CO2 gutxiago

isuriko da, eta udaleko arduradunek esandakoaren arabera, aurreztuko den energia kopurua urte batean petrolio tona baten baliokidea izango da. «Ekonomikoki honek 2.352 euro aurreztea ekarriko du, urtean», gaineratu dute.

### 2020. urterako plangintza

2020. urterako 20-20-20 helburua lortzeko plangintzari dagokionez, plangintzak udal kudeaketaren arlo asko ukituko dituela esan du udalak. «Udal eraikinak eta ibilgailuen fota, mugikortasun eredua, hondakinen kudeaketa, hirigintza eta birgaitze ereduak, laguntza fiskalak eta kon-



Jarriko duten argietako bat. HITZA

tzientziario eta hezkuntza kanpainak, beste batzuen artean», azaldu dute. Plangintza egiteko, ordea, herritarren, enpresen eta abarren ekarpenak jaso nahi dituzte eta horretarako aurkezpen bat egingo dute, urtarilaren 15ean udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan.

### Agenda

#### DEIALDIAK

- **Aduna.** 0-11 urteko haurren lokalean izena emateko azken eguna da gaur. Udaletxean eman behar da.
- **Alegia.** Gaztetxearen 25. urteurrena dela eta, gaur, *Gartxot* filma, 22:00etan.
- **Alegia.** Mundu bat Tolosaldean ekimenaren barruan gaur, Nasrudin eta bere astoa ipuina entzun ahal izango da Baraka taldekoaren eskutik, arabieraz eta euskaraz izango da, 18:00etan, kultur etxean.
- **Altzo.** Joseba Azkarraga Etxegibel soziologoaren *12 tesi bizi-modu honen akaberaz* hitzaldia emango da, 19:30ean, udaletxeko aretoan.
- **Tolosa.** *Hi Haiz, Hi!* jaialdia, gaur, 20:00etan, Leidorren.
- **Tolosa.** Laskorain Ikastolak urteko ohiko batzar orokorra egingo du, gaur, TOPICen. Hirugarren deialdian, 19:00etan. (Lehen deialdia 17:30ean eta bigarrena 18:00etan).
- **Tolosa.** Gaur, 19:30ean, Tolosako Udal Musika eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute. Musika eskolako areto nagusian izango da.

### Farmaziak

#### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48. Gaueko: Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren. 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

### Agurrak



Zorionak Ana Belen!  
EUSKAL PRESOKA ETXERA!



Urte askoan!  
Alaia Garro Ugartemendia (Inura).  
Gure etxeko printzesak gaur 7 urte! Muxu bat Urki, aitaixo eta amatxoren partez.

Egin HITZAren harpidedun...

...abenduaren 31 baino lehen eta jaso

Mahala baserriko  
produktuez osatutako  
saski ederra...

...opari



eta...

... HITZAren harpidedunen artean  
PORTUGALEN egiteko  
bi pertsonentzako zirkuitua  
zozkatuko dugu

hamamartiarako 902 82 02 01 / harpidetze@hitza.info

hitza